elkar

elkar
ALDIZKARIA
UDAZKENA 2012
29. ZENBAKIA
www.elkar.com

*“Ideiek euria bezala etorri behar dute, ez trumoiak eta ekaitza bezala”*

# Joxe Azurmendi



+

## FLASHBACK
Katixa Agirreren atal berria zinea eta literaturaz

## NOMBRES PROPIOS:
Javier Vizcaíno
Pedro Ugarte
Mikel Alvira
Jasone Osoro
Zaldieroa
Elena Arzak

8 435226 136547




# Tintaren eta paperaren denda

## La tienda del papel y la tinta

**elkar paper** dendetan, papertegian behar duzun guztia aurkituko duzu. Arte Ederretan, larrukietan eta oparirako idazketa produktuetan aukera zabala eskaintzen dizugu, baita merkatuko markarik onenak ere.

En las tiendas **elkar paper** podrás encontrar todo lo que necesites en papelería. Te ofrecemos una amplia selección de material de Bellas Artes, marroquinería y escritura de regalo representada por las mejores marcas del mercado.

Licenciado Poza, 14. 48011 Bilbo. 944 434 807

www.elkarpaper.com

San Prudencio, 7. 01005 Gasteiz. 945 144 501

## elkar dendak

**ALGORTA (GETXO)**
Telletxe 11
**94 491 66 16**

**ARRASATE**
Erdikokale 14
**943 79 78 29**

**BAIONA**
Arsenal plaza
**559 59 35 14**

**BASAURI**
Dr. Jose Garai 11
**94 426 13 84**

**BERGARA**
Ibargarai 12
**943 76 40 50**

**BILBO**
Licenciado Poza 14
**94 443 47 08**

Iparragirre 26
**94 424 02 28**

Zamudioko ataria
Zazpikale
**94 416 14 50**

**DONOSTIA**
Fermin Calbeton 21
**943 42 00 80**

Fermin Calbeton 30
**943 42 26 96**

Bergara 6
**943 42 63 50**

**GASTEIZ**
San Prudencio 7
**945 14 45 01**

Apraiztarrak 1
Campus
**945 14 16 70**

**HERNANI**
Kale Nagusia 30
**943 55 15 37**

**IRUN**
Colon pasealekua 8
**943 63 17 26**

**IRUÑEA**
Comedias 14
**948 22 41 67**

Larraona z/g
Golem eraikina
**948 17 55 38**

**TOLOSA**
Arostegieta z/g
**943 67 35 33**

# 200.000 LAGUN GARA!!

Lehen **elkar** liburu-dendak sortu genituenetik gaur arte egin dugun bidea bezeroen konfiantza eta atxikimendua irabazteko helburuz bete dugu. Sorreratik saiatu gara haiengandik gertu egoten ahalik eta zerbitzurik profesionalena eskainiz eta euskararentzat merkatuan lekua bermatuz.

Hori da lana egiteko guk beti izan dugun moldea, eta horrela, urtez urte, enpresa eta kultur proiektu gisa eraikitzen joan gara geure izaera, denboran luze iraun dezan **elkar** Fundazioan babestuz. Baina ez dugu ibilbidea geuk bakarrik egin, gure sektorean eskuratu dugun lekua sendotu eta indartzen, lagundu diguten gizartea eta merkatua izan ditugu bidelagun.

Kulturaren alde lan egiten dugu, gizarteari euskarazko kultura erakutsi eta hurbiltzeko ahaleginak biderkatuz, proiektua hobetu eta honen inguruan lanpostu gehiago sortzeko gure etekinen %100 berrinbertituz. Era honetan eraiki dugu **elkar** liburu-denden sarea. Guztion artean, guztiontzako.

## 200.000 bazkide



Oraingoan badugu zer ospatu.
Dagoeneko 200.000 gara **elkar** txarteldunak. Kopuru handi honen atzean deskontu eta promozioez baliatzen diren, **elkar** kultur aldizkaria irakurri edota **elkar** aretoetan antolatzen diren kultur ekintzetan parte hartzen duten pertsonen talde handi bat dago. Hala ere, garrantzitsuena, gure proiektuaren alde lan egiten duzuen 200.000 pertsonak zarete, proiektua partekatu eta gertukoa sentitzen duzuen lagunak. Mila esker guztioi. Eskerrik asko urte hauetan guztietan eman diguzuen laguntasun eta konfiantzagatik.

# ¡¡YA SOMOS 200.000!!

Desde que comenzaron a surgir las primeras librerías **elkar**, siempre hemos trabajado con el objetivo de obtener la confianza y la adhesión de nuestros clientes. Ya desde los inicios hemos buscado sentirnos cerca de ellos ofreciendo un servicio profesional y asegurando un lugar en el mercado para la cultura en euskera.

Esa ha sido nuestra forma de trabajar, y así, año tras año, hemos construido nuestra personalidad como empresa y como proyecto cultural, hasta depositarla en la Fundación **elkar**, para preservar así su continuidad durante muchos años más. En esta trayectoria no hemos estado sólos, la sociedad y el mercado nos han premiado con su cercanía, ayudándonos a consolidar un espacio propio en nuestro sector.

Trabajamos por la cultura, multiplicando los esfuerzos por acercar a la sociedad la cultura en euskera, reinvirtiendo el 100% de los retornos en mejorar nuestro proyecto y crear más puestos de trabajo en torno al mismo. Es así como hemos construido la red de librerías **elkar**. Entre todos, para todos.

Hoy estamos de celebración. Ya somos 200.000 amigos en torno a la tarjeta **elkar**. Un gran número detrás del cual hay un colectivo de personas que se benefician de los descuentos y promociones de la misma, leen la revista cultural **elkar** o participan en los actos culturales de **elkar** aretoa. Pero lo más importante son las 200.000 personas que nos ayudan a seguir adelante con nuestro proyecto, lo comparten con nosotros y lo sienten cercano.

Muchas gracias a todos. Gracias por vuestra compañía y confianza.

# Jarrai gaitzazu sarean! ¡Síguenos en la red!

## POSTDATA bloga

**Ikusiena euskaraz:**
*Gartxot. Konkista aitzineko konkista* DVDaren zozketa.
Benito Lertxundi *Oroimenaren oraina* diskoaren eta *Plazer bat izan duk, Benito!* liburuaren inguruan.

**Lo más leído en castellano:**
Iñaki Egaña habla acerca de su libro *Donostia 1813*.
La entrevista a Aitor Zulueta sobre la publicación de su último trabajo *La hermandad del Atlántico*.

**Iruzkin aipagarrienak:**
*Story cubes* jokoarekin jolasean oso iruzkin politak argitaratu ziren. Bat aipatzearren, Anerrek asmaturikoa: bere etxeko leihotik parkean dadoekin jolasean zebilen gizonaren istorio bitxia kontatu zuen.

**Comentarios destacados:**
El blog Scheimpflug comenta lo siguiente acerca del artículo *Baños de montaña* del fotógrafo y piblicista Alberto Muro: "brindando un regalo inigualable a nuestros cuerpos sudorosos, acalorados y sedientos".

## FACEBOOK

**Biralitate handien lortu duten euskarazko sarrerak:**
Hainbat elkar dendetan saltzeko jarri diren jokoen zerrenda, tamaina txikikoak, aproposak oporretara eramateko.
Bilboko Licenciado Pozako elkar denda berrituaren irudia, **elkar paper** atal berria.

**Contenido más viral en castellano:**
"Mil y una maneras de acabar con el mundo", la periodista Karolina Almagia escribe sobre apocalipsis y literatura.
Xabier Larretxea hernaniarraren "Escalada en el Pirineo Norte" liburuaren aurkezpena.

## TWITTER @elkar

**Interakziorik handiena eragin duten euskarazko sarrerak:**
Elkar argitaletxeko heldu eta haur literaturako udazkeneko nobedadeak.
Eako poesia egunaren egitaraua.

**Contenidos más interactivos:**
La entrevista a Toti Martínez de Lezea con motivo de la publicación de su libro *Mareas*.
La recomendación de Alberto Moyano del libro *Tú y yo* de Niccoló Ammaniti.

# JOXE AZURMENDI

## “Ideiek euria bezala etorri behar dute, ez trumoiak eta ekaitza bezala”



ARGAZKIAK: JUANTXO EGAÑA



*Barkamena, kondena, tortura* **da Joxe Azurmendiren liburu berria. Azken urteetan idatzitako hiru saiakera labur bildu dira lan honetan, eta hiruretan ere hari bat: garai batean Eliza bezala, gaur egun Estatua ari dela bihurtzen gure kontzientzien kontrolatzaile zuzen eta zorrotza. Gure bizigiro politikoan egunero entzuten ditugun kontzeptuei buruz ari da Azurmendi liburu honetan, ideia horien sakoneko esanahiak aztertu eta ur lohi horien iturri zaharrak argitzeko.**

**Estatua omen dugu kontzientzia kontrolatzailea, lehengo elizaren funtzioa betez. Zein dira kontzientziak menderatzeko Estatuak baliatzen dituen tresnak? Zein da kontrol horretatik ihes egiteko era?**
Zein tresna ez? Jaioberria erregistro zibilean modu jakin batean erregistratu behar izatetik hasi: haurra gizonezkoa da, emakumezkoa; eskolarekin jarraitu: esate baterako historiaren irakaskuntza; eta hiletaren arautzeraino, dena da kontzientzien kontrolerako Estatuaren tresna. Lan eta jai egunen kalendario erlijioso-politikoa, festa nazionalak. Kale izenak, monumentuak, banderak. Epaitegiak, zigorrak, espetxeak, eta horien beldurra. Alderdien sistema. Bozketak are gehiago, daukaten ordenamenduarekin. Parlamentuko diskurtsoak eta legegintza guztia. Zerbitzuan hartzen dituen intelektualak, prentsa. Zin egiteak, uniformeak. Polizia uniformatu bat aurrean ikuste hutsak ez al dizu kontzientzian zirrara bat eragiten? Estatua zure barruan dago, omnipresente, ezin zaio eta ez dago zergatik erabat ihes egin. Haren etengabeko kontzientzien inbasioari mugak jarri, bai, batez ere espainola bezalako Estatuetan eta bakearen ingurukoa bezalako arazoetan. Lehenbiziko urratsa inbasio horren kontzientzia hartzea da. Are gehiago moralarekin politika kamuflatu eta moralaren izenean politikoki bortxatu nahi bazaitu.

**Barkamena eta kondena ekarri dituzu liburuaren izenburura. Gurean aurrera egingo badugu ezinbestean bete beharreko bi baldintza dira batzuen ustez. Zuk, ordea, ez dituzu hala ikusten.**
Ni ez nago printzipioz barkatzearen edo kondenatzearen aurka, mila gauza barkatzen edo kondenatzen dugu, hori gabe ez dut uste morala posible denik. Baina testuingurua begiratu behar da eta batez ere egintzaren zentzua. Begira, Alemaniako Parlamentuak barkamena eskatzen du Gernikako bonbardaketagatik. Horren zentzua morala al da? Ez, egintza politiko bat da, nahi baduzu diplomatikoa. Esan nahi du: gaurko Alemaniak horrelako jokabideak arras baztertzen ditu, zuekin gaur nahi ditugun harremanak adiskidezkoak dira, iraganeko forma bortitzak deitoratzen ditugu. Beharbada eragindako kalteen erantzunbeharra ere asumitzen du, eta laguntza ekonomikoren bat ematen du. Baina kontzientzia morala zentzu hertsian beti pertsonala da. Parlamentuaren kontzientzia moralik edo damurik ez dago, adiera metaforikoan ez bada. Herri alemanaren erru eta erantzukizun moralik bonbardaketa harengatik ez dago. Gutxiago aleman demokratena, are gutxiago gaur bizi diren alemanena. Egunen batean Espainiak Euskadiri edo Euskadik Espainiari barkamena eskatzen badio, edo ETAk, oso ongi. Baina egintza soziala politikoa izango da, ez morala. Horrek ez du esan gura balio moralik ez duela. Lagundu lezake gure moraltasun publikoa, bakezaletasuna, elkarrenganako adeitasuna zabaltzen. Edo ez. Txantaiaren emaitza baldin bada moralki ez du kalte besterik egingo. Uste dut hori ari garela ikusten. Damuaren eta barkamenaren esijentzia zitala mendeku gisa. Elkarbizitza bat neurri batean normala ezinezkoa egiteko ahalegin fatala.

**Hausnarketa, eztabaida falta dugula diozu (Alemanian bai ematen omen da hemen ez**

**bezala), eta "*jarrera ikasleagoa*" aholkatzen duzu. Zergatik? Azaldu ezazu, arren.**
Nola orain denerako Alemania aipatu behar den, erru eta damuaren arloan ere Alemania aipatzen da, eta gaizki. Alemanen erru kolektiboa Hitlerrengatik, euskaldunon erru kolektiboa ETArengatik. Eta alemanek, damutu eta, euren erru kolektiboa aitortu omen dute. Paralelo faltsua eta informazio faltsua. Alemanek egin dutena da azterketa historiko, politiko, soziologikoa, nola etorri ziren, etorri ziren puntura. Begira, Joseba Agirreazkuenagak *Euskal herritarren burujabetza* liburu bikain-bikaina atera berri du, Alberdanian. Bere ikerketaren helburu nagusiak beste batzuk ditu, baina espilu bat ematen du, gu nola etorri garen gauden tokira. XVIII. mendearen burutik honaino Euskal Herriaren historia guztia da gerra, negoziazio, erresistentzia, berriro gerra, negoziazioa, etab. Politikatik moralkeriara ihes egin gabe, alemanek egin dutena euren bilakabide politikoa aztertzea izan da, beste ezein herrik Europan egin ez duen bezalako autokritika egin, norabide berria hartu, eta hori sendotzen etengabe ahalegintzen dira. Alemaniatik zerbait ikastekotan hori ikas dezakegu. Baina horrek esan nahiko luke, hasteko onartzen dugula ETA arazo politikoa dela, ez arazo morala, eta soluzio politikoa eman behar zaiola. Eta ez dut esaten ez dela arazo morala ere, modu batean, baina hori beste kontu bat da, eta politikak ez dauka ezer esatekorik horretaz.

**"*Kontzientziak lotu-lotuak edukitzeko sokarik estuena ogia da*" diozu liburuan. Baina ogi eskasia gose bihurtzen bada ez al liteke kontzientzia eragile bihurtu? Ogi eskasiasasoia da bete-betean. Erreakzionatuko al dugu?**
Iraultzaren mitoa ez bada hori… Dirudienez, ordea, historilari eta soziologo gehienek hala diote, goseak dagoenak albaramenduak eta matxinadak bai, baina iraultzarik ez du inoiz egin. Goseak dagoenak hurbil-hurbileko helburuak esesten ditu larri. Ez naiz optimistegia. Beharbada, iraultza funtzionario anarkistei oraingoz utzi eta, krisi ekonomikoak apaltxeago bizitzen ikasaraz diezaguke, lana hobeto kudeatzen, sindikato razionalak indartzen, gizarte auzolangina, kooperatzailea antolatzen, agente sozial eta ekonomikoak kontzertatzen, autogestioa eta elkargestioa garatzen. Hau da, eredu alternatiborik ez badaukagu eskura, gutxienez lan gizartearen erreforma efikazak egiten. Egin dezakegunean kontzentratu behar genuke, ez egin ezin dugunean, amets ederrak izanda ere.

> *"Euskara jasotzeko erakunde ofizialen laguntza garrantzizkoa da, baina erabakiorra talde euskaltzaleen lana"*

**Kontzientzia kontrolaz ari zara, baina esan liteke kontzientzia kontrol horri ez diozula traba handirik egiten liburu eta gogoeta guztiok euskara hutsez eginda.**
Mundua salbatzeko bokazioa ez da nirea. Kontzientzia morala beti pertsonala da, indibiduala. Denok elkarri lagunduta, baina kontzientziaren defentsa azkenean bakoitzak berea egin behar du. Ni neure inguruko jende gutxi batekin saiatzen naiz. Euskaraz idaztea hautu bat da, jende baten hautua. Hautu bat den bezala nik erabiltzen ditudan gai polemikoak saio eta liburuetan tratatzea. Beraz, jende are gutxiagorentzat. Ez da ahaztu behar intelektuala esaten den hori, hedabide handietatik masak seduzitzen edo harangatzen, oso erraz bihurtzen dela kontzientzien inbasorea, Elizaren antzera. Salbazio doktrina handirik nik ez daukat.

> *"Intelektuala esaten den hori, hedabide handietatik masak seduzitu edo harangatzen, oso erraz bihurtzen da kontzientzien inbasorea, Elizaren antzera*

Ikuspegi bat ematen dut. Informazio bat eta arrazoi batzuk. Neure moduko jendeari, euskaldunei. Badakit beste batzuek hori gero hobeto garatu edo aplikatuko dutela. Pentsatzen dut ideiek euria bezala etorri behar dutela, ez trumoiak eta ekaitza bezala. Eta denborak bere lana egingo duela soroan.

**Unibertsitateko jardunarekin batera jakina da beste egitasmo batzuekin izan duzun eta daukazun harreman estua. Hitz labur batzuk bakoitzari buruz?**
Euskarazko lana batez ere Jakinen eta Elkarren eman dut nik. Baita UEU, Argia, Anaitasuna, Egunkaria, Klasikoak, kolaboratu ahal nuen



edozein tokitan uste dut ibili naizela zerbait. Nire konbentzimendua delako, euskara jasotzeko erakunde ofizialen laguntza garrantzizkoa dela, baina erabakiorra talde euskaltzaleen lana. Jakinen 1959/60ko Gabonetako zenbakian hasi nintzen, artean hogei urte bete gabe, eta hor nago beti. Elkarren ere hasieratik nago. 1974ean sortzaileen artean, 1996an Elkar Fundazioaren sortzaileetako kide, 96tik joan den urtera arte Fundazioko Patronatuaren lehendakariorde, neure meritorik gabe, orain ere Patronatuko kide naiz. Baina Elkarri batez ere nire totxoak, Xabier Mendigurenek txukunduta, argitaratzea zor diot. Eta Elkarreko langile guztiei, euren lanarekin holako argitalpenak euskaraz posible egitea merkatuko lege guztien kontra eskertu behar zaie, eta eskertzen diet hemen.

**Eusko Ikaskuntzaren saria jaso duzu aurten, errekonozimendu garrantzitsua.**
Esan bezala, taldean egin dut beti nire lana. Gerra ostean eta nire hasieran hori halabeharrekoa zen. Elkarri irakurriz iniziatu gara gure arazoen birpentsaketan, elkarri irakurriz ikasi dugu euskaraz idazten, denon artean markatu ditugu jorratzeko gaiak. Batzuk pioneroak izan dira: Krutwig, Mirande, Txillardegi, Aresti. Beste batzuk beharbada orain ahaztuagoak, baina oso inportanteak: Rikardo Arregi, Eusebio Osa. Sariek eta sari emaileek nola funtzionatzen duten ez dakit. Baina nire idazkiak, eztabaidak, posturak piska bat ezagutzen dituenak, badaki uhin kolektibo horretan eta bereziki Jakinen historian kokatzen dela nire obra osoa.
Eta badaki, saria niretzat bada, errekonozimendua uhin horrentzako dela. Disimuloz aitortuta, beharbada. Horrek pozten nau.

**JONE DORRONSORO**
Kazetaria



## Proposamena



**ELENA ARZAK**
Cocinera

# SABOR A CANELA

Hace ya un tiempo que adquirí este libro que hoy comento, y que debido a mis obligaciones profesionales siempre tan acuciantes, había dejado olvidado en los estantes de mi librería. Se trata de *Sabor a Canela*. Su autor es el malagueño **Carlos Carmona**, del que anteriormente leí otra curiosa novela que, asímismo me enganchó: *Sabor a chocolate*. *Sabor a Canela* no es una secuela, pero sí la confirmación de un estilo muy singular de frases escuetas y sencillas y al mismo tiempo profundas, de capítulos cortos, todo envuelto en un aire poético e intimista. Esta novela nos cuenta la historia de **Cecile Goldberg**, una niña que desde pequeña quiere ser directora de orquesta. Casi una excusa para que el autor (que además de profesor de filosofía es titulado superior de dirección de orquesta) pueda descubrirnos la no tan conocida discriminación de la mujer en este terreno. Carmona pone el dedo en la llaga con sinceridad y valentía.
Nos muestra a una mujer que tiene que disfrazarse de hombre, esconder su condición femenina e inscribirse como Albert (pero con su verdadero currículo) para obtener el premio en el concurso internacional de dirección de orquesta de la Academia Chigiana de Siena.
Un sueño alcanzado pese a que la ignorancia y las incomprensiones pretendieron dinamitar su ilusión. De todas formas, en el epílogo de editor de la obra se dice lapidariamente que por desgracia "hoy en día casi ninguna mujer es titular de una Orquesta Sinfónica en toda Europa". Como expresa la propia Cecile en la novela: "ella era música ya, sólo necesitaba ser reconocida, necesitaba que los hombres se quitaran las gafas de ver el mundo por sexos y que sin prejuicio ninguno la oyeran; ella no era una mujer, ella era un ser humano, un ser humano que amaba la música...".




**SABOR A CANELA**
José Carlos Carmona

**PLANETA**



## Profila

# GARCÍA MARQUEZ



**JAVIER VIZCAÍNO**
Periodista

## REGRESO A GABO

Como tantos de mi generación y las dos o tres que la precedieron, con Gabriel García Márquez viré de la idolatría adolescente al calculado desapego de esos años en que crees que eres dueño de todas las certezas. Quedaba uno muy bien en el papel de martillo pilón desmitificador, pontificando incluso que era un farsante o, peor que eso en aquella época, otro producto de la malvada industria cultural de masas igual de artificial que cualquier autor de best sellers. La puntilla fue que lo bendijeran con el despreciado Nobel y aquellos libros que nos habían fascinado quedaran manchados con una sobrecubierta como reclamo para lectores que compraban por la cáscara. Desde entonces, sentenciamos lo que fuera que publicara como literatura menor destinada a consumidores de dominicales, pseudoizquierdosos de caviar y críticos cobistas vendidos al mercado. ¿El amor en los tiempos del cólera? Un culebrón. ¿El general en su laberinto? Una novelita histórica llena de trampas. ¿Del amor y otros demonios? Una de Corín Tellado con esos pomposos nombres de personajes que ya cansan. Hasta a La aventura de Miguel Littín clandestino en Chile, impecable, le encontramos como pero que era oportunista y panfletaria. En paralelo al despelleje de la obra presente, sometimos a revisión —más bien a anatema— a la pasada, la misma que nos había subyugado y, en mi caso, había supuesto el descubrimiento de las letras adultas. No hubo la menor piedad.

Como si estuviéramos ajustando cuentas con el propio desencanto o como si fuéramos San Pedro negando a Jesús, abjuramos de La hojarasca, El otoño del patriarca, Crónica de una muerte anunciada y, por descontado, de Cien años de soledad. En nuestro ardor iconoclasta, todos esos títulos estaban superados, envejecían fatal y, para colmo, habían alimentado a un ejército de plagiarios insufribles que parían Macondos de cuarta división.
Esa última es la única acusación que mantengo al cabo del tiempo suficiente para haberme desprendido de prejuicios y verdades esféricas. Alentado por la propuesta de escribir las líneas que tienen ante sus ojos, este verano, igual que el asesino que vuelve al lugar del crimen, me he reencontrado con Gabriel García-Márquez. Y no sólo con él. Entre las páginas de El coronel no tiene quien le escriba, inicio de mi viaje de regreso, estaba el seminiño que fui algún día, deslumbrado de nuevo por un grandioso domador de palabras... a quien le debía una disculpa y todo mi respeto.





POR EL GANADOR DEL PREMIO BOOKER Y DEL PREMIO KAFKA, ANTESALA DEL NOBEL

«Maravilloso… Banville demuestra su talento para escribir sobre la verdadera textura del erotismo… Merece vender diez veces más que *Cincuenta sombras de Grey*.»
*Sunday Express*

«El jurado de Estocolmo debería descolgar el teléfono ya mismo.»
*Financial Times*

PRISA EDICIONES
ALFAGUARA
www.alfaguara.com
Síguenos en: y

# · flashback ·



KATIXA AGIRRE IDAZLEA




## MOTZETIK LUZERA

Oi, liburuak, zinearen hornitzaile amaiezinak! Eleberri erdi-arrakastatsu bat idaztea lortzen baduzu, zaude ziur: laster etorriko zaizu zine jendea txeke bat eskuan. Behar hori dauka zineak. Eta bitxia da, baina eleberria irakurri eta pelikula ikusi ondoren, jende askok "tira, liburua gehiago gustatu zitzaidan" esan ohi du, "pelikulan gauza gehiegi moztu dituzte". Zorionez, horrelakorik ez da gertatzen fikzio motzean, ipuinetan alegia, oinarritutako film ugarietan. Horrelakoetan ez dago gehiegi moztu beharrik.

*Brokeback Mountain* (**Ang Lee**, 2005) pelikula mamitsuaren atzean, adibidez, ipuin bakan bat dago. **Annie Proulx** idazle iparramerikarrak *Close Range: Wyoming Stories* liburutik hartuta dago bi behizain gayren istorio hunkigarria. Pelikularen ostean egindako edizioetan *Brokeback Mountain* (Siglo XXI, 2005) izenpean bizi da ipuin-liburua, Wyomingo paisaietan girotutako hamaika istorio.

Ematen du **Ang Lee** zuzendariak gustua hartu ziola fikzio motzari, bere hurrengo pelikularako (*Lust, Caution*, 2007) **Eileen Chang** idazle txinatarraren izen bereko ipuina aukeratu baitzuen, Hong Kong eta Shangaiko intrigei buruz hitz egiteko.

Batzuetan zaila suertatzen da deskubritzea ze ipuin dagoen film baten atzean. **Michelangelo Antionioni Julio Cortázar**ren *Las babas del diablo* ipuinean inspiratu zen *Blow-up* pelikula mitikoa egiterakoan, libreki inspiratu ere. Aitzakia ona dena den, Londreseko argazkilari obsesiboaren filma zein Cortazarren *Las armas secretas* (Cátedra, 2004) ipuin-liburua birpasatzeko.

Istorio laburren maisu iparramerikarrek ere pantailara jotzeko aukera izan dute, fortuna handiz gainera. Burt Lancaster igerilari bitxi samarra bihurtu zen *The Swimmer* (**Sydney Pollack**, 1968) pelikulan, **John Cheever**-en izen bereko ipuinari jarraituz. Okasio bikaina Cheever-en *Relatos Completos* (Emecé, 2006) bilduma zoragarriarekin blaitzeko.

Eta zer esan **Raymond Carver**-i buruz. **Robert Altman**ek bere bederatzi ipuin eta poema bat hartuz, nahastuz eta berriz ordenatuz *Shortcuts* (1993) pelikula gazi-gozoa egin zuen. Filma lagunduz, Carverren lan horiek *Shortcuts: Vidas Cruzadas* (Anagrama, 1993) liburuan bilduko ziren urte berean.

**Manuel Rivas**en *La lengua de las mariposas* ipuina 1999an eraman zen pantailara, izen berarekin eta **José Luis Cuerda**ren eskutik. Gerra Zibileko istorio lazgarri eta samur honek bigarren bizitza bat eskaini zion Rivasen bigarren ipuin liburuari *¿Qué me quieres, amor?* (Alfaguara, 1995), berrirakurketa bat merezi duena.

Eta euskal letretara etorrita, hamarkada bat eta erdi itxaron behar izan zuen **Bernardo Atxaga**ren *Obabakoak* (Erein, 1988) garrantzitsuak, pantailara jauzi egiteko. 2005ean ikusi ahal izan genituen begi aurrean Obabako maistraren amodioak eta belarrietatik muskerrak sartzen zituen gazte baldarraren balentriak. *Obaba* (2005) **Montxo Armendariz**en ahalegina izan zen. Kasu honetan, maiz gertatu ohi den moduan, liburua gehiago gustatu zitzaidan.

LA NOVELA MÁS MÁGICA DE ALBERT ESPINOSA
CUANDO CREES QUE CONOCES TODAS LAS RESPUESTAS LLEGA EL UNIVERSO Y TE CAMBIA TODAS LAS PREGUNTAS...




SIGUE A ALBERT EN
WEB OFICIAL
WWW.ALBERTESPINOSA.COM
FACEBOOK
WWW.FACEBOOK.COM/ALBERT.ESPINOSA.OFICIAL
TWEETER
@ESPINOSA_ALBERT
DEBOLS!LLO
www.megustaleerdebolsillo.com



# MIKEL ALVIRA

## “Cada nuevo libro pretende servirme de reflexión”

FOTOGRAFÍAS: DAVID DE HARO




**Mikel Alvira es un hombre de letras: cultiva el ensayo, el guión, la novela, el relato y la poesía. Ha recibido premios en París, Buenos Aires, Santurtzi, Segorbe y Barakaldo, entre otros lugares. En esta ocasión su última novela *El mar que te debía* nos atrapa gracias a la audacia del autor a la hora de tejer una red que conecta a todos los personajes de la novela.**

**En esta última novela el mar es el denominador común que entrelaza las diferentes historias.**
Soy un navarro que vive junto al Cantábrico. Si la montaña es algo que me ha marcado, no lo es menos el mar. Actualmente, creo que me costaría vivir lejos de él. Me apetecía escribir algo todavía más marítimo que *Llegará la Lluvia*, así que me embarqué en esta aventura en la que el mar aparece en cada página.

**El escenario de la novela transcurre en Saint Henry, Francia. ¿Por qué esta localización?**
Porque Iparralde es parte de nuestra cultura y porque frecuento Las Landas, soy un enamorado de su quietud fuera de las temporadas de verano, de ahí que la novela transcurra en Semana Santa. Con Saint Henry vuelvo a mi imaginario, a esa costumbre mía de crear toponimias; el lector tendrá que adivinar de qué pueblo se trata: será nuevamente un juego divertido. De todas formas, allí es donde se desarrolla la acción, pero las diferentes historias nos llevarán a otros rincones de Euskal Herria: Hondarribia, Usurbil, Bergara... Creo que mis historias, y ésta especialmente, son universales: al fin y al cabo, hablo de relaciones, de amistades, de amor, de encuentros y desencuentros, de miedos…

**Una de las protagonistas tiene una floristería, y a su vez cada personaje va unido a una flor o planta. Cuéntanos qué has querido decir con ésto.**
He de confesar que no tengo con las plantas la mano que yo quisiera, quizás por eso me atraen tanto las floristerías; sobre todo ésas con encanto, como la de Rose, mi personaje. En cuanto a lo de que cada personaje tiene vinculada una flor… el lector sacará sus conclusiones. Al fin y al cabo, las novelas tienen múltiples lecturas. Ha sido un recorrido fascinante hasta encontrar la flor que se adecúa a cada personaje.

**Los fantasmas del pasado vuelven al presente en muchas de las historias que narran los diferentes personajes. ¿Existen las segundas oportunidades?**
La vida está llena de infinitas oportunidades. Soy un optimista convencido. De todas formas, sí es cierto que a estos personajes, como creo que a todos nosotros, les envuelven los recuerdos. A veces son fantasmas, a veces son nostalgias y, en muchas ocasiones, alicientes. En todo caso, no hay que arrepentirse de lo vivido, sino extraer aprendizajes.



**En la novela aparecen diferentes momentos de la historia de Euskal Herria y Francia principalmente. También hay guiños al momento político y económico actual.**
Me siento cómodo en ese redil. Siempre he dicho que yo no hago novela histórica, pero que el contexto histórico marca la vida de mis personajes. Quien quiera aprender de historia, que lea ensayos de historia. Yo lo que hago es crear el escenario y eso es fácil en nuestro país: tenemos una historia llena de matices de la que sacar mucho jugo. Y, en efecto, me asomo por primera vez a la situación política reciente. Estoy preocupado por el cariz que está tomando esta Europa tardoliberal en la que se pierden identidades y derechos con el pretexto de los mercados.

**Las diferencias políticas y generacionales también tienen lugar en la novela. ¿El salto tecnológico de los últimos años marca distancias entre generaciones?**
Los *nativos digitales* nos han adelantado por la derecha. El salto generacional se ha subvertido. Con todo, no es algo malo; es algo novedoso. No me asustan las diferencias (sería peligrosa una sociedad de “iguales”). Lo catastrófico es que estas diferencias generen violencia.

**Las relaciones personales son el hilo que entrelaza esta novela. ¿Cuál es la importancia de las mismas en la novela y en la vida real?**
No hago libros de autoayuda (¡estaría bueno!), pero sí que procuro transmitir que, por encima de todo, lo que importa son las relaciones y las emociones; el resto es importante aunque secundario. Cada nuevo libro pretende servirme de reflexión. Eso sí, sin perder el ritmo de la trama, cierta intriga… hasta llevar al lector a un desenlace inesperado. Al fin y al cabo, no deja de ser una novela.

**Amor, odio, rencor, amistad, vida, muerte… son temas que aparecen continuamente. ¿Cuál fue la base para que empezaras a escribir este último trabajo?**
Para esta novela tenía tres mimbres: el mar, la situación política actual y el peso de los recuerdos. A eso le uní un marcado acento femenino (el peso de la historia lo llevan varias mujeres) y un paisaje de embrujo como es Saint Henry. Ha sido divertido tejer este enredo de relaciones, pasiones, miedos, amores… Hay mucho de mi recorrido personal en estas páginas.

**¿Cuál sería la conclusión que pueden sacar los lectores de la novela?**
No sabría contestar. Estoy seguro de que sacarán sus conclusiones y, como siempre, aprenderé a partir de las respuestas que me lleguen. Para mí, cada libro es un aprendizaje. Por eso valoro tanto que la gente se me acerque, que me escriba, que me comente qué le ha dicho la novela, qué le ha gustado o disgustado, qué enfoque le da…

**En los últimos años no has parado de publicar diferentes obras y géneros: poesía, novela, relatos… ¿De dónde te viene la inspiración para tanta creación?**
Supongo que del trabajo y de la observación. Soy inconformista, un buscador. Eso sí, sin dramatismos: me divierto, aprendo y tejo relaciones. ¿Qué más pedir?

**OIHANA OTAEGI**
Kazetaria

# La escritura como expresión artística

elkar paper





## *Despacito y con buena letra*

Si bien el bolígrafo primero, y posteriormente la máquina de escribir y el ordenador supusieron la desaparición de la caligrafía de nuestra vida cotidiana, se puede afirmar que hoy vuelve a ser un arte muy vivo que cada vez está más presente a nuestro alrededor, en la publicidad, los logotipos o las etiquetas de muchos productos. Se habla de un renacimiento de la caligrafía, de la escritura elaborada, exclusiva, artística, fenómeno que también se viene reflejando en nuestras librerías **elkar**. Cada vez son más los amantes de la escritura y los coleccionistas que se acercan en busca de material, bien sea para saciar su inspiración creativa, bien para hacer un regalo, o como colofón a un exitoso fin de carrera.
Cualquiera puede aprender a escribir bien. La clave de una buena escritura es tan simple como practicar y practicar. No en vano aseguran los expertos que la escritura es fundamental para fomentar la coordinación y las habilidades manuales.

## UNA AGENDA PARA CADA ESTILO DE VIDA



Una agenda es más que un simple cuaderno que nos ayuda a organizarnos. Para la buena marcha de nuestro día a día es vital acertar en la elección de la que más se ajuste a nuestras necesidades y estilo de vida.
Hay gran variedad en materiales, tamaños, diseños y contenidos: calendario de tres años, calendario lunar, santoral, recetas de cocina, textos literarios, refranes, agendas a día o a semana vista, dietarios...

### *¡Personalízalas!*

En la red de librerías elkar se pueden personalizar las agendas a demanda. El comprador puede encargar la impresión del nombre del propietario de la agenda junto al de la empresa, el logotipo o lo que considere más oportuno.

## IKASLE EZKERTIENTZAT MATERIALA




### *Bakoitza berearekin!*

Lateralitatea denok normaltzat hartu arren, eskolan ohikoak diren zenbait lan, esaterako, guraizez marra zuzen bat jarraituz moztea, egınkizun zaila gerta daiteke ezkertientzat eskuinengan pentsatutako guraizeekin egiten bada. Bada, **elkar** liburu-dendetan haur ezkerrentzat egokitatutako materiala dago eskuragarri.

**Guraizeak**: guraizeak ahoak iztulita ditu, ezkerrekoa beti eskuinekoaren gainetik geratzen delarik.
**Zorrozkailua:** Arkatza ezker eskuaz hartu eta noranzko naturalean biratzen da.
**Erregela alderantzikatua:** Irakurketa ez trabatzeko eskuarekin.
**Egokitzaileak:** arkatz edo boligrafoa eusten lagunutzen duten piezak dira.

# ARIAN: EUSKARA IKASTEKO GOGOA PIZTUKO DIZU

Urtebete beteko da Arian euskara ikasteko metodoak argia ikusi zuela. Hamabi hilabete horietan, metodoari dagozkion lau irakurgai ere kaleratu dira: Tangoa noizean behin, Otsoa, Borrokalari argitsuak eta Siberiako lorea. Orain Arian A2.1 atal berria kaleratu da eta urte bukaeran iritsiko da A2.2 atala.

Euskara norberak bere kasa edo taldean ikasteko lan-tresna baliagarri gisa kaleratu da Arian. Ibilbide labur eta aldi berean, esanguratsu horretan, ikasle zein irakasleek izan dute metodoa erabiltzeko eta ezagutzeko betarik eta, oro har, oso balorazio baikorra egiteko moduan gara. Koldo Urtiaga ikasle autodidaktak *"bakarkako ikasketa prozesuan aurrera erraz egiten laguntzen duen metodoa"* dela azpimarratu du, eta egunerokotasuneko egoera praktikoetan euskara erabiltzeko aukera eskaintzen duela hasieratik. Erabilpenean berehala murgildu ahal izateak "euskara ikasten jarraitzeko gogoa pizten du" ikasle honen hitzetan.

*Ilazki euskaltegiko Josefina Txurruka irakasleak positiboki baloratzen du orain artean Arian metodorekin izandako esperientzia: "Arian euskara ikasteko metodoa ona eta berritzailea da. Ikasteko zein irakasteko material gisa erabil daiteke, baina nire ustez egokiagoa da ikasleak bere kasa ikasteko, erakusteko baino. Hala ere, irakasleok aprobetxa dezakegun material ugari du. Orain arte merkatuan beste hainbat metodo izan dira, baina hau bezalakorik ez. Ezberdintasunik handiena lexiko aldetik ikusten dut: ikasleak hasiera-hasieratik kalean erabil ditzakeen esamoldeak ikasten ditu, hizkuntza lehenengo unetik jar dezake praktikan".*

**ARIAN A2**

Arian A2.1 argitaratu berri du Elkar argitaletxeak, joan den ikasturtean kaleratutako A1 mailaren atalari jarraipena emanez. Bigarren hau sei unitatez osatua dago: batetik Ikaslearen liburua dago, ariketen erantzunak, entzunaldien transkripzioak eta entzunaldien CDa barne dituela; eta bestetik, Lan-koadernoa, ariketen erantzun eta guzti. Urte amaieran, alde batetik, atal honi dagokion Multimedia CDa kaleratuko da, eta bestetik, hurrengo atala, Arian A2.2, eta datozen ikasturteetan ondorengoak.




## ARIAN, método práctico de euskera

Con el segundo volumen de Arian, el usuario avanzará en el aprendizaje del euskera y podrá utilizar el idioma en situaciones del día a día. Logrará entender conversaciones sencillas entre nativos, instrucciones básicas, la idea principal de los mensajes y expresiones breves. Será capaz de comprender cartas, solicitudes, prospectos, guías, catálogos y también de escribir textos breves y simples, y narrar relatos cortos y sencillos. En la expresión oral, sabrá hacer una descripción o presentación de personas, condiciones de vida o trabajo, actividades diarias, cosas que le gustan o no le gustan, utilizando una lista de frases y oraciones breves.

En definitiva, los objetivos que marca el método Arian están enfocados a que el progreso en el aprendizaje sea notable a nivel práctico, lo que ayudará y animará al usuario a proseguir en el difícil reto de aprender una nueva lengua.



## EUSKALTZAINDIAREN HIZTEGIA Adierak eta adibideak




2000. urtean argitaratu zuen Euskaltzaindiak Hiztegi Batua. Hogei bat mila hitzeko zerrenda zen, hitz horien ortografia batua adierazten zuena batez ere. Hiztegi berri hau 20.000 hitz haiei dagokien "hiztegi osoa" da, hots, haietako hitz bakoitza adierez, definizioz eta adibidez hornitzen duena.

*"**Euskaltzaindiaren Hiztegia, adierak eta adibideak.** Hona hemen, erabiltzailearen eskura, urte luzetan ondutako ahaleginen emaitza; euskararen akademiak moldatua eta itxuratua."* Honela dio Andres Urrutia euskaltzainburuak hiztegiaren aurre-hitzen hasieran. Izan ere, Euskalkietatik nahiz egungo bizimodutik euskararen egunerokotasunean errotu diren hitzak sistematizatzen eta egokitzen saiatu da Euskaltzaindia etengabe Hiztegi Batuan, estandar delakoaren hitz zerrenda erabilgarria osatuz. Orain beste pauso bat eman du euskararen normalizazio eta normatibizazio munduan: euskara-euskara hiztegia argitaratu du, euskararen hitzek dituzten adierak eta adibideak euskararen bidez emanik.

Euskaltzaindiaren Hiztegia ez da hizkuntzalarientzat, are gutxiago hiztegigileentzat, baizik eta idazle, irakasle edo teknikarientzat, futbolari nahiz ekonomialarientzat. Hiztegi honetan, besteetan bezala, hitz bakoitzak sarrera bat osatzen du, eta sarrera horretan definizio bat edo gehiago ematen dira, adieren arabera.

Euskaltzaindiaren Hiztegia, erabiltzaile orori tresna berria eskaintzera dator, euskara bera gero eta erabilgarriagoa, gero eta ageriagoa izan dadin euskal gizartean.

## DICTIONNAIRE ELHUYAR HIZTEGIA




Elhuyar Fundazioak ***Dictionnaire Elhuyar hiztegia***, euskara-frantsesa / français-basque hiztegiaren bigarren argitalpena prestatu du.

Hiztegi honetan euskarazko hitzaren frantsesezko ordaina lortuko dugu, eta alderantziz. Frantsesa zein euskara ikasten ari den edozeinentzat erabilgarria da, eta adin guztietarako ere egokia da. Eskolan, akademian, unibertsitatean, lanean… erabilgarria da. Bigarren argitalpen honetan, Euskaltzaindia etengabe osatzen eta Interneten argitaratzen ari den Hiztegi Batua izan da prestakuntza-lanen zutabeetako bat.

Lehen argitalpenarekin alderatuta, 2004an kaleratua hura, hiztegia adibidez eta oharrez hornitzeko lanek hartu dute lanen parte handi bat. Hiztegiaren 42.034 hiztegi-unitateak eremu geografikoaren markez, marka semantikoez eta erabilera-oharrez hornitzeko lanek ere pisu handia hartu dute.

# KOMIKIA

ZALDIEROA



## Laster liburu-dendan...

*La Serie Negra de RBA promete intriga con títulos de **Patricia Cornwell, Raymond Chandler e Ian Rankin**, entre otros. También Siruela propone novela negra: "Cruces de Piedra" de **Domingo Villar**.*

*Datorren udaberria izango da **Harkaitz Cano eta Antton Olariaga** bikoteak landutako proietu ezberdina liburu-dendetara iristerako: testuak ilustratu ordez, marrazkietatik abiatu dira, eta horiei istorioa asmatu die Canok. Elkar argitaletxeak argitaratuko du.*

*Elkarren eskutik iritsiko dira, baita ere, **Katixa Agirre**ren Amaia Lapitzek idatzitako abenturen bigarren liburukia eta **Garazi Goia**ren nobela berria, 1937an gerratik ihesi Ingalaterrara joandako haurren kasua kontatzen duena.*

*Anagrama y Mondadori publicarán "Aquí y ahora", la corespondencia entre **Paul Auster** y **J.M.Coetzee**. Alfaguara anuncia novedades de dos autores bien conocidos: **Manuel Rivas** publicará "Storyboard" y **Arturo Pérez Reverte** "El tango de la Guardia Vieja", una turbia y apasionada historia de amor, traiciones e intrigas, que se desarrolla durante cuatro décadas del siglo XX.*

***Anjel Lertxundik** "Minimalia" argitaratuko du aurki Alberdaniarekin, ipuin, kontakizun eta istorio laburrez osatutako liburua. **Joan Mari Irigoien** altzatarra datorren udaberrirako atontzen ari da herrialde arabiar bat eta armagintzara dedikatzen den euskal familia bat tartekatuko dituen lana.*

*La propuesta más exquisita, como cada año en Navidades, llega de la mano de los restauradores: **Andoni Luis Aduriz** publicará el libro "Mugaritz", **Eva Argiñano** nos enseñará a hacer bombones de chocolate y **Carlos Argiñano**, propone 100 recetas en "Como en casa".*

*Denonartean zigilupean kaleratuko da: Kasu eman idusei, **Lola Gándara**ren Eleberri historikoa **Angel Erro**k itzulita. Susa-ren eskutik argitaratuko du nobela berria **Kirmen Uribe** ondarrutarrak, Durangoko Azokarako garaiz: Gerra Zibila eta II Mundu Gerran hasi eta gaur egun arte eramango gaituen narrazioan.*

*Dos libros de autoayuda que tendrán buena acogida: **Luis Rojas Marcos** publicará "Los secretos de la felicidad" y **Edurne Pasaban** "Objetivo confianza", para terminar el año con optimismo.*

*Durangon izango dira, Pamielaren eskutik **Bernardo Atxagaren** "Paradisua eta katuak" liburu-diskoa eta "Somos moros bajo la niebla" **Joseba Sarrionandia**ren liburu garrantzitsua gaztelerara ekarrita. **Txalapartak** besteak beste "Hura ez da lekua" izenburua duen narratiba liburua dakar, lau egilek sinatua.*

*Vuelve a las librerías **Manolito Gafotas**, el personaje creado por **Elvira Lindo**, bajo el título "Mejor Manolo". También regresa **Paulo Coelho** con "El manuscrito encontrado en Accra", la historia del documento que recoge los consejos de un sabio griego a la población de Jerusalén ante la inminente invasión de la ciudad por los cruzados.*

*Musikan aurreratzekoak asko dira, hemen Durangoko Azokarako helduko diren batzuk: **Gose**ren lan berria, bere bosgarrena izango dena, **Betagarri** taldearen "Zorion argiak" CD bikoitza, eta Baga-Biga zigilupean iritsiko diren **Gatibu** eta **Vendetta**.*

***Toti Martínez de Lezea** presentará a primeros de noviembre "Mareas", "Urak dakarrena" en euskera, una treintena de relatos ambientados en la costa vasca, protagonizados por mujeres de diferentes épocas y extracto social. Será en la editorial Ttarttalo. Plaza y Janés publicará "Amor" de **Isabel Allende***

*La apuesta de Maeva para estas Navidades es "El sonido de la vida" de **Alex George**, una tierna historia sobre las vicisitudes de una pareja de emigrantes en la América del siglo XX. Impedimenta estrena colección de novela gráfica con un "**Virginia Woolf**" de Michèle Gazier y Bernard Ciccolini.*

# IRAKURLEZALEEN OASIAK



**Ikasturte berria hasi da eta harekin batera irakurle txokoen jarduera. Iraila eta ekaina bitarte Euskal Herriko hainbat herri eta hiritan izango da liburuak aztertu eta idazleekin solasteko aukera: Zarautz, Durango, Estellerria, Biarritz, Zumarraga, Iurreta, Segura, Elizondo, Legazpi… Horietako batzuk ekarri ditugu ondorengo lerroetara, aukera zabalagoaren lagin bat.**

Udazkenetik udaberrira, hilabetean behin biltzen dira ia irakurle klub edo txoko guztiak. Iban Zalduak, Gasteizko irakurle txokoaren arduradunak, hasiberri den ikasturterako aukeratu dituzten bi liburuen aurrerapena egin digu: "**Harkaitz Cano**ren *Twist* eta **Alice Munro**ren *Zorion handiegia*. Canok etorriko dela agindu digu jada eta *Zorion handiegia*ren kasuan, ia ziur itzultzailea izango dugula gure artean". Iaz egin zituzten bileren artean, **Juanra Madariaga** idazlearekin batera egindako *Eroriaren logika* poema-liburuaren irakurraldia, **Primo Levi**ren *Hau gizon bat bada* obraren inguruko saioa edota **Mohamed Xukri**ren *Ogi hutsa*rena aipatu ditu Zalduak. Saio bat gogoratzekotan, **Ramon Saizarbitoria**ren *Martutene* azpimarratu du: "Liburu handia da zentzu guztietan, eta bertaratu ginen askok pasioz irakurri eta eztabaidatu genuen. Egilea bertan eta horren adeitsu egoteak, unea berezi bihurtu zuen".

Iazko ikasturtean Gasteizen eta, aurtengoan, Donostiako ikasturtea estreinatzen izango da *Martutene* obra. **Pello Lizarralde**ren *Orbanak* eta **Sofi Oksanen**en *Garbiketa* izango dira urte amaierara begira egingo dituzten beste bi saioekin landuko dituztenak. Iñigo Aranbarrik zuzentzen du Donostiako Udal Liburutegiak sortu zuen irakurle txokoa.

Iaz, arestian aipatutako *Twist* nobelak ikusmin handia sortu zuela adierazi du Aranbarrik, eta gehitu du **Koldo Izagirre**ren *Egarri egunak portualdean* liburuaren saioa gogoratzen duela batez ere, "bildu zen jendearen ezaugarriengatik-edo azken zirrikituraino gozatu genuen". Ekitaldi-egutegi oparoa dago Bizkaian. Zazpi udalerritako irakurle txokoak zuzentzen ditu Isa Castillok eta zehaztuta ditu jada lehen saioak. Basauriko Pozokoetxe kultur etxean, **Garazi Kamio**ren *Beste norbaiten zapatak* izango da urrian eta **Jane Teller**ren *Ezer ez* liburuaren inguruko solasaldia azaroan. Bermeon, **Truman Capote**ren *Kamaleoientzako musika* izango dute mintzagai urrian, bai eta **Begoña Bilbao**ren *Palestina zure mina* obra ere azaroan.

Bestetik, azaroaren 12 eta 14 bitartean, Igorreko irakurle txokoan, solaskideek **Unai Elorriaga** idazlearekin batera aztertuko dute *Londres kartoizkoa da* lana. Gauza bera egingo dute Iurretan, abenduaren 12an, baina, kasu honetan, **Patxi Zubizarreta**ren laguntzaz, *Joan* lanaz hitz egingo dute.

Bilboko foru liburutegian, berriz, hilabetean bitan elkartzen dira. Lehenengo liburu bat adostu eta horren inguruko solasaldia egiten dute moderatzaile baten laguntzaz. Hamabost egunetara liburu horren autorea gonbidatzen dute hitzaldi bat eman dezan. Alex Oviedo foru liburutegiko irakurketa txokoaren arduradunaren arabera, idazlea eta irakurlea elkartzea da txoko honen helburua. Iaz, **Willy Uribe** idazlearen hitzaldiak arrakasta handia izan zuen: "Bere liburuko pasarteak aukeratu eta idazlearen adierazpenekin batera tartekatu genituen pasarte horien irakurraldiak". **Bernardo Atxaga** izan da, bestalde, txoko horretan jende gehien bildu duen idazlea. Ikasturte berriari dagokionez, **Joanes Urkixo**k zine eta literaturaren arteko harremanaz hitz egingo du; urrian, aldiz, **Jon Bilbao** bere bi liburuz mintzatuko da: *Bajo el influjo del cometa* eta *Padres, hijos y primates*. Azaroan, **Uxue Alberdi**ren txanda izango da.

**POESIARI BERE TARTEA**

2005eko udaberrian sortu zuen Mikel Asurmendik Hendaiako *Literaturaren menturan* ekimena. Lehen bi urteetan idazle bat deitu eta hitzaldi bat ematen zuen. 2008az geroztik, berriz, bi atal ditu ekimenak: *Neguko poesia* eta *Uda berriko narrazioa*. *Neguko poesian* idazleak edota poetak olerkiak errezitatzen ditu musikari batzuez lagundurik. Azken urteetan **Jose Angel Irigaray**k, **Jose Luis Otamendi**k eta **Tere Irastortza**k parte hartu dute; aurten, ordea, **Itxaro Borda**ren presentzia lortzea espero du Asurmendik.

*Udaberriko narrazioa* literatur hitzaldia da. Hendaian ere **Ramon Saizarbitoria** eta *Martutene* obra nahi ditu arduradunak.

**JAIOBERRIAK DIREN TXOKOAK**

Ibilbide laburra baina arrakastatsua izan du Iruñeko San Jorge liburutegiko irakurle txokoak. Bigarren urtea hasiko du aurten eta, Patxi Irurzun arduradunaren arabera, taldea egonkortu nahi dute: "Lehenengo urtean elkar ezagutu dugu eta, orain, esan liteke taldea trinkotu egin dela eta, beraz, errazagoa egingo zaigula liburuen inguruan hitz egitea". Fisikoki ez da idazlerik izan euren artean, baina **Belen Gopegi**k txat bidez jarraitu zuen *El padre de Blancanieves* lanaren azterketa.

Ikasturte berria, ordea, **Patxi Irurzun**en beraren lan batekin hasiko dute: *Atrapados en el paraíso*. "Saioa idazle-moderatzailearekin egingo dute. Ondoren, **Norman Mailer**ren *A sangre fría* liburuaz ariko gara eta, urtea bukatu baino lehen, **Raymond Carver**-en *Catedral* lana aztertuko dugu".

Estellerrian ere, literatura zale taldetxoa elkartzen da, Lizarrako liburutegi publikoan. **Natalia Ginzburg** italiarraren *Gure etxeko kontuak* liburuaren solasaldia gogora ekarri du Xabier Iaben arduradunak, "arras polita" izan baitzen. **Fernando Rey** itzultzaileak parte hartu zuen solasaldi horretan.

Azken batean, irakurtzea gustuko duten beste irakurleekin batera, liburu baten inguruan pertsona bakoitzak dituen hausnarketak konpartitzea da funtsean irakurle txoko batek duen helburua. Izan ere, Iñigo Aranbarrik zehaztu duen moduan, "ederra da beste irakurketa batzuekin norberarena aberastea".

**NAROA BALSATEGI**
Kazetaria

elkar ARE-TOA

## Urria / octubre:

INFO +: WWW.ELKAR.COM/ARETOA

### Donostia (Fermin Calbeton, 21):

**10** – 19:00H: **Joxe Azurmendi**
*Barkamena, kondena, tortura*

**23** – 19:00H: **Iñigo Bolinaga**
*La alternativa Garat*

### Bilbo (Licenciado Poza, 14):

**04** – 19:00H: **Agustín Hurtado**
*Dos coronas para una dama*

**30** – 19:00H: **Joxe Felix Azurmendi**
*PNV-ETA, crónica oculta (1960-1979).*

### Iruñea (Comedias, 14):

**04** – 19:00H: **Mikel Albisu**
*Bidasoa: Kontrabandisten bidea*
*La senda de los contabandistas*

**10** – 19:00H: **Rulo y La Contrabanda**.
*Especies en extinción*

**25** – 19:00H: **Mikel Alvira**
*El mar que te debía*

### Iruñea (Larraona, Golem):

**18** – 19:00H: **Begoña Labaien**
*Quiero una cita. El día que fui a la sexóloga*

### Gasteiz (San Prundecio, 7):

**09** – 18:30H: **Asier Maia Anabitarte**
*Bizi-hitzak. Barne bidaia literarioa*
*Vidas y venidas. Un viaje literario interior*

**19** – 19:00H: **Itziar Marcotegui**
**Pablo Strubell**
*Cómo preparar un gran viaje*

### Baiona (Arsenal plaza):

**19** – 18:00H: **Bernardo Atxaga**.
*Bere obrari buruzko solasaldia.*






FOTOGRAFÍA : RAFA RIVAS

# "Asombra lo irreal que llega a ser la realidad"

**Tras seis años sin publicar, Pedro Ugarte ha regresado este año a las librerías por partida doble. En septiembre aparecía *El mundo de los Cabezas Vacías* (Páginas de Espuma), un libro de relatos en el que glosa y disecciona zozobras, servidumbres, alegrías y miserias de la cotidianidad y sus rutinas. Poco después, con el boom inmobiliario como eje central, desembarcaba *El país del dinero* (Algaida), merecedora del V Premio Logroño de Novela.**
**Dos nuevos títulos que se suman a la sólida trayectoria de un escritor que es capaz de analizar con precisión las contradicciones de nuestra sociedad y la urdimbre compleja de las relaciones familiares, laborales o sentimentales. Su mirada se traslada a la literatura con humor, ternura contenida y cierto sarcasmo, y arroja un resultado tan realista como imaginativo.**

**Su novela *El país del dinero,* que puede leerse como una alegoría del boom inmobiliario, explica –al menos en parte- cómo hemos llegado a la situación económica en que estamos. ¿La crisis se veía venir?**
La crisis se veía venir, pero el enunciado corresponde al presente, este presente que analiza el pasado. Ahora parece una evidencia que estábamos inmersos en una completa locura, pero entonces no lo parecía. De todos modos, la economía tiene un elemento tan importante de psicología social que a veces pienso que deberíamos vincularla con la magia.

**Políticos corruptos, fieles del pelotazo y del trapicheo a gran escala, ambiciosos con muy poca vergüenza… Imagino que para crear algunos de sus personajes le habrá resultado muy útil leer la prensa diaria.**
Sí, bueno, la lectura de la prensa ha sido importante, pero también cosas que me han contado protagonistas (o testigos) del estropicio inmobiliario. Y hay una tercera fuente: el conocimiento directo de ciertos tipos. Los he conocido, sí, y hay pasajes inspirados en hechos ciertos, a veces escandalosamente ciertos.

**La novela transcurre en el gran Bilbao, y las dos márgenes de la ría, con sus desigualdades, funcionan como un resumen de nuestra sociedad.**
Siempre he considerado que el Bilbao metropolitano tiene una configuración muy teatral. En todas las ciudades hay barrios ricos y barrios pobres, pero es curiosa la disposición de dos riberas que se separan claramente por un criterio económico. Esa distribución, no nos engañemos, sigue condicionando mucho más de lo que nos gustaría aceptar.

**¿Qué nos vuelve más locos?¿El dinero o el amor?**
El ser humano es una construcción tan fascinante que en él caben toda clase de locuras. Si algo como la literatura puede volver locos a algunos de ellos, ¿cómo no van a hacerlo, con mucha mayor fuerza, el dinero o el amor? En cuanto a la pregunta "cuál más", sinceramente, no lo sé…

**En *El país del dinero* hay lugar también para una historia de amor intensa y extraña: la de Jorge y Sharon.**
Es una historia poco convencional, si se mira en la superficie, pero quizás, en un estrato más profundo, sea un retrato cruel de muchas relaciones personales. Como relación sentimental, hay en ella pulsiones muy poco románticas (la ambición, el modo en que el dinero condiciona la vida, incluso la conciencia de las clases sociales). Además se desarrolla una relación sexual bastante extravagante, que ha sorprendido a muchas personas. A algunas por la práctica sexual en sí, y a algunas otras porque se me hubiera ocurrido a mí. En general, nuestra capacidad de sorprender a los otros corre pareja a nuestra capacidad para decepcionarlos, incluso para despertar admiraciones tontas.

*“El escritor no tiene derecho a condicionar esa otra forma artística que es una película. Ver lo que has imaginado es una experiencia impresionante.”*

**Por cierto, ¿por qué le gusta tanto el nombre de Jorge para sus personajes masculinos?**

Hay mucho de voluntad estilística en que mi personaje se llame siempre igual. Jorge ha protagonizado tres de mis cinco novelas y alrededor de sesenta cuentos largos. Quizás sea un modo de señalar que, al final, uno busca construir un mundo literario, y esa construcción se fundamenta en un modo de pensar concreto y en un modo, también concreto, de mirar la realidad.

**Ha escrito poesía, relatos y en esta novela se acerca al ensayo. Cuando decide escribir sobre una idea o un tema determinado, ¿sabe pronto a través de qué género lo hará?**

Escribo muy poca poesía, pero cuando afronto un poema sé que estoy buscando eso y no otra cosa. Con la narrativa la experiencia es más compleja: en mi caso, la idea de una novela es el fruto de un largo proceso de maduración; el cuento, en cambio, es fruto de un chispazo. Ese distinto origen condiciona el género del texto.

**Este año hemos tenido la firma Pedro Ugarte por partida doble porque muy poco antes de la novela publicó el libro de relatos *El mundo de los Cabezas Vacías,* un trabajo que se surte de la cotidianidad, siempre inagotable y tumultuosa.**

Por circunstancias personales, estuve seis años sin publicar narrativa. La verdad es que no fueron años especialmente fecundos, pero aún así iban saliendo cosas. No es extraño, si uno es escritor, que seis años den para una novela y un puñado de cuentos.

*El mundo de los Cabezas Vacías* se surte de esa cotidianidad que, en efecto, es inagotable y tumultuosa. Asombra lo irreal que llega a ser la realidad.

**En sus relatos el humor es un elemento importante e irrumpe, a veces, en situaciones dramáticas manifestando, de nuevo, su capacidad salvadora: salva la realidad y también puede salvar un texto.**

Creo en cierta capacidad redentora de la literatura. Pero es una creencia, cuidado, y como tal algo absolutamente






opinable. En esa idea de la literatura es importante el humor, pero también cualquier otra manifestación de la inteligencia. Tenemos una pobre inteligencia de la que debemos hacer uso, al menos para levantar acta de lo que ocurre, y mostrar ante el universo nuestra perplejidad.

**Su novela *Casi inocentes* acaba de ser llevada a la gran pantalla. ¿Cómo ha resultado la experiencia?**

Es la segunda vez en que una de mis novelas se convierte en película. No he tenido una relación muy estrecha con el proyecto porque no he ejercido de guionista, pero lo que tengo claro es que el escritor no tiene derecho a condicionar esa otra forma artística que es una película. Lo que he visto de *Casi inocentes*, la verdad, me ha emocionado. Ver lo que has imaginado tomando cuerpo es una experiencia impresionante.

**TXANI RODRIGUEZ**
Escritora



# LITERATURAK BATU ZITUENEKOA

**Bikote hitza esaterakoan sarri burura datorkiguna zera da: sentimendu erromantiko-sexualak lotzen dituen pertsona bi. Horrela izan liteke zenbait kasutan, baina ez beti. Literaturak bikote asko eman du: adiskidetasunak, maitasunak, gorrotoak edota lanak lotutakoak. Sarri literatur lan berean egon ez arren pertsonaiek bikoteak sor litzakete. Amaigabea litzatekeen zerrendari mugak ezarri eta hauxe da gure proposamena.**



**JOSEAN MORLESIN**
Ilustratzailea

Sir **Conan Doyle**-ren irudimenak sortu zuen Sherlock Holmes, eta jainkoaren pentsamendu bera izan zuen: izaki hain miragarri batek ezin du bakarrik egon. Horregatik eman zion laguntzailea: Dr Watson. Azken hau ez zen Holmes-en saihetsetik sortu, baina ia bat zirela esan genezake. Kontrakortasunean eraikitako bikotea da baina osogarriak dira oso. Dualismoak funtzionatzen du Holmesen gabeziak Watsonek betetzen dituelako eta alderantziz. Abenturazaleak dira, jakinmin asezinekoak, justiziaren bilaketa etengabean daude. Bikote esanguratsua da literaturan. Oso irakurria eta oso maitatua (ez gara osterantzeko euskarrietara pasatu diren bertsioetaz jardungo hemen). Badu, baina, beste istorio batean oinarria: Edgar **Allan Poe**-k sortutako C. Auguste Dupin-en ispilu baita Sherlock Holmes. Hiru ipuin sortu zituen Poek protagonista berberarekin: *The murders in the Rue Morgue*, *The mystery of Margot Rogêt* eta *The purloined letter.* Dupinek ere bazuen laguntzaile fidel eta leiala, hain zuzen ere istorioak kontatzen dituen izenbako narratzailea. Misteriotsua egiten da zenbaitetan narratzailea (edo beti), baina agerian ikusten da bien arteko lokarri sendoak izan, badirela. Bi bikote hauen jatorria norbaitek beste bikote batean aurki lezake: On Kixote eta Santxo Pantza bikotean, hain zuzen ere (*On Kixote* – **Miguel Cervantes**). Antagonismoan oinarria duten bikoteak dira, egiaren bila dabiltzanak, lider-laguntzaile dualismoari erantzuten diotenak. Egia da sakontasunez begiratuz gero alde nabarmenak daudela bikoteen artean. Baina ezin ukatu buruzagi-laguntzaile tipoa errepikakorra badela, eta osterantzeko antzekotasunak ere badituztela.

Sor dezagun, baina, beste bikote bat. Agian On Kixoterekin lotu genezakeen beste literatur pertsonaia da *Madame Bovary.* **Gustave Flauvert**-ek asmatutako Emma Bovary irakurketek zoratu zuten, eta biek eraikitzen dituzten ametsek nolabait suntsitu egiten dituzte. Beraz Emma Bovary-On Kixote izan liteke bikote bat. Eta begirada miope batetik, Charles Bovary, alegia, Monsieur Bovary har genezake Santxo Pantzatzat. Hortaz hemen beste bikote bat izango genuke Emma eta Charles Bovaryk osotutakoa (hau ez hain ustekabekoa).

Baina bai, Emma Bovaryrekin lotu beharko genukeen literatur pertsonaia *Anna Karénina* litzateke. **Liev Tolstoik** idatzitako Anna Karénina ere gizarteari errebelatzen zaio, egokitu zaion bizitza ez du maite, maitaleak aurkitzen dituzte (Emma Bovaryk Rodolphe eta Leon; Anna Karéninak, berriz, Vronsky kontea) , biek amaiera tragikoa dute. Bekatariak dira gizartearen aurrean. Esan genezake literaturak sortutako bikotea sor lezaketela Emma Bovaryk eta Anna Karéninak. Beste ikuspuntu batetik begiratuta beste bikote bat egokitu dakieke Bovary eta Kareninari: Lancelot eta Ginevere bikotea. Bai, horrela azalduta ez diozu lotura handirik aurkitzen. Baina bikoteak aldatuko bagenitu? Anna Karenina eta Leon (izan zuen bigarren maitalea), Anna Karénina eta Vronsky kontea, eta hirugarrena, Lancelot eta Guinevere. Zerk lotzen ditu hiru bikoteok? Bekatuak. Arthur erregearen emaztea zen Guinevere, Lancelotekin maitemintzen dena. Agian norbaitek Arthur eta Lancelot lotuko lituzte bikote gisa. Zilegi da, izan ere, bateragarriak dira, oso. Bikote hau aipatzerakoan beste bat etorri zait gogora: *Batman* (**Bob Kane**) eta Robin. Bai, esango didazu antzik ez dutela. Baina ez al dira hauek ere borrokalari bi? Bi bikoteek badute zeregin “historikoa” esan dezagun, eta badago bikote bietan nagusiarenganako menpekotasun zantzurik. Batman nagusia eta bere laguntzaile Robin gaztea, eta Arthur erregea eta bere zaldun nagusia Lancelot.



Segi dezagun bikote kontuetan. **William Shakespeare** idazleak bikote asko sortu zituen. Ezagunena *Romeo eta Julieta* izan ziren. Montesco eta Capuleto familiako errak banatu zituen betiko eta erromantikotasunaren gailurtzat hartzen da bikote hau. Bikote honekin antzekotasun handiak daude; Tristan eta Isolde (*Tristan e Isolda* -**Eilhart Von Oberg**) bikotean. Ustez zeltiar tradizioan oinarria dute bikote honen nondik norakoek. Errege (ezberdinen) seme-alaba ziren bai Tristan eta baita Isolde ere. Romeo eta Julieta moduan, euren maitasuna tragediak beteriko istorioa da. Eta hirugarren bikote bat ere aipatu behar dugu hari honetatik tiraka: **Fernando de Rojas**ek idatzitako *La Cestina*k sortu zuena. Calixto eta Melibeak ere amaiera tragikoko istorioa dute. Ez dakit bikote literariotzat har litekeen Maria Solt eta Kastero. Bi amoros zahar bero ziren baina Maria Solt ahurdun geratu zen eta Kasterok etxetik bota zuen beste norbaitekin sexu harremanak izan zituelakoan. Etxahunek kontatu zuen, gutako askok **Benito Lertxundi**ren kantuari esker ezagutu genuen (*Eta maita herria*, 2004 Elkar) bi maitaleen istorioa. Bikote klasikoa, gurean.

*Bram Stoker irlandarrak ere sortu zuen bikote eternotzat har genezakeena: Dracula eta Mina Harker. Ezer bada bikote erromantikoa da.*

Baina Shakespeare-k egindako lanera itzul gaitezen. Sortu zituen edo literaturara ekarri zituen bikoteak: *Hamlet* eta Ophelia; *Otelo* eta Desdemona; Cleopatra eta Marco Antonio (Bai, benetan bizi izan ziren pertsonaiak ei dira, baina Shakespeare-k idatzitako "Anthony and Cleopatra" lanean ondo isladatuta geratu ziren, literaturan betiko), *Macbeth* eta Lady Macbeth.

**Bram Stoker** irlandarrak ere sortu zuen bikote eternotzat har genezakeena: *Dracula* eta Mina Harker. Ezer bada bikote erromantikoa da. Erromantikotasunean murgilduta, esan genezake **Brönte** ahizpek eta **Jane Austen**-ek idatzitako eleberrietan agertzen diren bikote protagonistek oso antzeko bidea izan ohi dutela. Jane Austen-en *Pride and Prejudice* lanean agertzen dira Elizabeth Bennet eta Mr Darcy, *Sense and sensibility*-n agertutako Elinor Dashwood eta Christopher Brandon, eta Emily Brönteren *Wuthering heights*-eko Catherine Earnshaw eta Heathcliff-en arteko bikoteak oso



antzekoak dira. Amaiera zoriontsurako bide malkartsua egin behar duten bikoteak dira. Amaiera zoriontsua izan zuten beste bi bikote aipatu behar ditugu: Tarzan eta Jane. **Edgar Rice Burroughs**-ek sortu zituen 1912an kaleratutako lan batean. Harrezkero aldaera asko izan ditu, baina bikotea beti elkarrekin azaldu da. Robin Hood eta Lady Mariann ere jite berdineko bikotea izan liteke. Inglaterrako oso aspaldiko ahozko tradizio bidez kontatu izan den istorioa da, gerora liburuetan agertu izan dena. Izan ei zen Robin de Locksley izeneko gizon bat Robin Hood-en oinarrian dagoen pertsonaia izan daitekeena.

*Dualismoak funtzionatzen du Holmesen gabeziak Watsonek betetzen dituelako eta alderantziz.*

Gure artean ere bada bikote aski ezaguna: Maritxu eta Bartolo. Kantuaren bidez ailegatu zaigu istorioa. Maritxu iturrira doa ardo zuriaren bila eta Bartolok berarekin iturriratzeko eta ardo zuria hartzeko proposamena egin zion. Ez didazu ukatuko Maritxu eta Bartolo kontutan izateko bikotea denik? **Jon Mirande**k idatzitako *Haur besoetakoa* liburuak ere bazuen bikote berezia: Narratzailea eta Theresak osotutakoa. Eta *Haur besoetakoa* aipatuta ezin bazterrean utzi **Vladimir Nabokov**-ek idatzitako *Lolita*. Bertan agertzen da bikote ezaguna: Lolita, nerabe ederra eta Humbert irakaslearen artean. Gehiago ere otutzen zaizkit: **Joxean Sagastizabal**en *Kutsidazu bidea, Ixabel*-en azaldutako Ixabel eta Juan Martin; **Ramon Saizarbitoriaren** *Martutene*-n agertutako Martin eta Julia; edota, **Irati Jimenez**en *Nora ez dakizun hori* lanean agertutako Nora eta Martin. Pertsonaiak non, bikoteak han.

**GOIZALDE LANDABASO**
Kazetaria eta idazlea



# Burua jolasean jartzeko jokoak! ¡Para mentes divertidas!





## EL FRUTAL
Haba (3-8 urte)

Kooperazioa

**Sartu otarrean fruituak….**
**Introduce las frutas en tu cesto…**
Sagar gozoak, gerezi gorriak, udare urtsuak eta haran zoragarriak aurkituko ditugu kooperazio joko honetan. Adin guztientzako da eta bi jokalari baino gehiagok jolas dezakete. Taldeak frutaz egindako pastel handia prestatu nahi du eta horretarako baratzean hazten diren aleak beharko ditu. Baina, kontuz!, otarre bakoitzean ez badira fruitu bakoitzeko gutxienez bi pieza batzen, pastela egitea ezinezkoa izango da! Jolas honetan koloretako dado batekin jolastuko duzue eta fruitu bakoitzak bere kolorea edukiko du dadoan.
Irabazle izan nahi baduzu, badakizu, otarre bakoitzean fruta bakoitzeko bi ale lortzeko gai izan beharko duzu…

## GIRO GALOPPO
Selecta Spiel (6-99 urte)

Estrategia

**Zaldizkoak, erne!**
**¡Jinetes a sus monturas!**
¡El evento de equitación de la temporada ha comenzado! Cinco caballos de carreras prometedores corren a lo largo de la pista. Pero no todo sale como está previsto, ya que se empujan unos a otros y algunos caen, desbaratando los planes de los hambrientos competidores. ¡Peligro! Es necesario jugar bien las cartas con una táctica inteligente y, con un poco de suerte, el más rápido ganará la carrera.



## JUNGLE SPEED
Asmodee (3-15 urte)

Abiadura, erreflexuak

**Murgil zaitez oihan sakonean!**
**¡Sumérgete en las profundidades de la selva!**
Erreflexu jolasa da hau. Bertan, 4 eta 10 lagun artean jardun daitezke. Garaipenera eramango gaituzten elementuak honokoak dira: begirada zorrotza, esku azkarrak eta nerbio sendoak. Jokalari bakoitzak karta mordoa jasoko du eta irabazlea izan nahi badu, lehenbailehen gainetik kendu beharko ditu guztiak. Jungle Jam jolasak erronka berria jartzen dio zure erreakzio gaitasunari, barrea eginaraziko dizu eta gainera zure inguruko izpiritu txarrak uxatuko ditu. Jolas hau asperraldiaren aurkako botikarik onena dela esaten dute!



## GRAFITTI ESPRESS
Djeco (7-13 urte)

Sormena eta irudimena

**Margotu dezagun eta sor ditzagun eranskailuak.**
**Coloreemos y hagamos pegatinas.**
En este juego encontrarás fórmulas para dar con el color elegido, enormes camiones para aprender a dibujar y 3 modelos gigantescos para crear tus propias etiquetas. Podrás crear fantásticos graffitis llenos de color. Un equipo completo para este reto artístico, que pondrá en juego tu imaginación.

# GOZATEGI ALL STARS 1992-2012



“Disko hau gure jarraitzaileentzako opari moduko bat da”

ARGAZKIAK: UNAI BELLAMY




***Gozategi all stars* diskoak taldearen ibilbidea jasotzen du. Betiko kantak birgrabatu dituzte Mikel Irazokiren zuzendaritzapean. Kantuen nortasunari eutsi badiote ere, erritmo eta melodiaren uztarketa berezi bat sortu dute.**

**20 urte pasa dira lehenengo maketaz geroztik. Nola gogoratzen duzue hasiera?**
Oso oroitzapen onak ditugu. Ez genuen ezer espero, itxaropen handirik ez genuen. Maketa 1994ean grabatu genuen, 1992an hasi ginen elkarrekin jotzen eta hortik aurrera oso sentsazio onak jaso ditugu beti. Trikiti munduan Gozategi anai-arrebak ginenez, Gozategi jarri genion taldeari. Musika munduan bakoitzak gure esperientzia genuen eta horrek intentsitatea eman zigun. Erabat ezberdinak ziren bi mundu uztartu genituen.

**1995ean *Gozategi* lehen diskoa, trikitia pop-rock mundura sartu zen garaikoa da.**
Ordura arte bi mundu horiek bananduta zeuden: batetik musika eta bestetik trikitia zegoen. Trikitia baserriko giroan eta auzo txikietan jotzen zen. Pop-rock-trikitia eta horrelako definizioen gainetik kantak daudela uste dugu. Urteak pasa ahala, kantak dira gelditzen direnak, klasifikazioak egitea normala bada ere. Jendeak beste sentsazio batzuk ditu, hori da garrantzitsua, nahiz eta jantzi horrek berrikuntza puntu bat eman. Azken finean, instrumentu horren atzean dagoen musikaria eta horrek egiten duen interpretazioa da garrantzitsuena.

***Ainhoa* diskoarekin etorri zen arrakastarik handiena, euskal mundutik at zeuden komunikabideek zabalkundea eman zioten.**
Elkar diskoetxeko Anjel Valdes konturatu zen izandako difusioaz. Ordura arte ukiezinak ziren komunikabideetan sartu ziren gure kantuak. Taberna eta diskoteka askotan ere lehen aldiz hasi ziren euskal musika jartzen. Beste talde batzuek ere aukera hori izaten hasi ziren. *Nirekin* kantak ireki zituen ate horiek baina gero Alaitz eta Maider edo trikitia ez zen beste euskal talde batzuk ere sartu ziren poliki-poliki. Horretaz oso harro gaude.

**Urtetan disko berririk ez egin arren, zuzenekoetan ez duzue inoiz atsedenik hartu.**
Plazak ez ditugu inoiz utzi. Hogei urte hauetan ez dugu atsedenik hartu zuzenekoei dagokionez. Guztira ez dakigu zenbat zuzeneko eman ditugun baina mila bat inguru izango dira, agian gehiago ere bai. Askotan bi edo hiru kontzertu eskaini ditugu egun berean, adibidez 1995eko uztailan hogeita hamairu kontzertu eman genituen.

*Ukiezinak ziren komunikabideetan sartu ziren gure kantuak, eta ondoren, beste euskal talde batzuk ere sartu ziren. Horretaz oso harro gaude.*

***Gozategi all stars* diskoa sortzeko ideia nondik atera duzue?**
Azken urteotan oso giro berezia sortzen ari zela sumatu genuen: jende gaztea etortzen da zuzenekoetara, askok guk baino hobe dakizkite gure kanten letrak, abesti asko gazte hauek jaio baino lehenagokoak diren arren. Kontzertua bukatzean gerturatu eta oso gauza politak esaten dizkigute. Disko hau gure jarraitzaileentzako opari modukoa da, guretzako bezala. Disko hau Gozategi bere osotasunean deskubritzeko disko-bilduma bat da.

**Disko honetan zeintzuk dira berrikuntza aipagarrienak?**
20 urte geroagoko ahotsarekin, teknologia berriekin… baina kantak berdinak dira, modernizatuak baina erroa berdina da. Badaude perkusioak, programazioak, haizeak… parte hartu duten musikariek nola grabatu duten… denak du eragina. Inongo presiorik gabe grabatu dugu, letrak eginak zeuden, beraz, musikan kontzentratu gara. Mikel Irazokik egin du produkzioa, teknikaria Jean Phocas izan da eta nahasketetan Pepo Scherman izan dugu. Ezin dugu gehiago eskatu.

**Mikel Irazokiren produkzioak zer ekarri dio diskoari?**
Produktoreak, hasiera-hasieratik helburu bat izan du: zuzenekoan emateko gai garen hori islatu diskoan. Horregatik ez da sartu oso moldaketa desberdinetan, kantak aurreko diskoetan zeuden moduan oso ondo zeudela iruditzen zitzaion, abiadura berdina mantendu nahi izan du. Guk zerbait ustekabekoa egin nahi genuen, hasierako bileretan hori izan zen bota genuena baina berak hasierako izpiritu hori mantendu nahi izan du.

**Nola egin duzue kantuen aukeraketa?**
Oso zaila izan da. Hasteko ehun bat kanta ditugula kontuan hartzekoa da. Argi genuen sartu behar zirela batez ere zuzenekoetan oso ondo funtzionatzen duten horiek; dena den, orotara 30 bat ziren eta azkenean 13 dira sartu ahal izan ditugunak. Fandangoa eta arin-arina tartean zeudela, 11 kanta aukeratu behar izan ditugu. 1997ko Korrikako kanta ere sartu dugu hauen artean, hau da beste diskoetan ez zegoen kanta bakarra.

**OIHANA OTAEGI**
Kazetaria

DISKOGRAFIA

*Gozategi* (Elkar, 1995)



*Ainhoa* (Elkar, 1996)



*Kalanbreak* (Elkar, 1998)



*Egunon* (Elkar, 2000)



*Gozategi* (Babelmusik, 2006)



*Bizi-bizirik* (Babelmusik, 2010)



*Gozategi all stars* (Elkar, 2012)



# Pequeñas travesías con trasfondo histórico



ARGAZKIA: SUA ARTXIBOA

Las distintas motivaciones que han empujado a los humanos a moverse de un lugar a otro, han dejado un reguero de caminos y senderos que, habiendo perdido su razón original, se han convertido en estupendas vías de tránsito ocioso, sea con unas botas de montaña como tracción, sobre el sillín de una bicicleta o a lomos de un caballo. Estos caminos poseen como rasgo común su carácter histórico, están ligados a las "carreteras" de los arrieros, a las migraciones laborales, a las líneas de fuga en épocas belicosas, al flujo de romeros jacobeos, y también a las nocturnas y clandestinas actividades de los contrabandistas. Además, no hay que olvidar aquellos que enlazan hitos arquitectónicos de distinto signo, o los que surcan los polvorientos firmes por los cuales se deslizaba un ferrocarril unido a los ahora inexistentes raíles.

Retazos de la Historia, caminos de la memoria o huellas del pasado. Los podemos llamar como queramos, pero siempre mantienen un vínculo entre lo que fue antaño y lo que hoy resta, y con un poco de información y otro tanto de imaginación, podemos llegar a vivir una pequeña regresión a tiempos inexistentes desde la realidad actual. Son caminos que nos permiten revivir virtualmente los días del ayer.

**Contrabandistas del Bidasoa.** Numerosos son los puntos de la muga pirenaica en los cuales hallamos sendas, caminos y senderos de los contrabandistas, lo cual dice mucho de lo extendida que estuvo esta "profesión" en nuestras tierras, pero el más atractivo y acondicionado de estos itinerarios discurre por el Bidasoa y sus aledaños. Era lugar de importante volumen de comercio ilegal, que durante los convulsos tiempos de la II Guerra Mundial también implicó la conversión de los contrabandistas en mugalaris o passeurs. Con la complicidad de la oscuridad trasladaban a los perseguidos librándolos de un destino fatal, que fue a su vez el que, en ocasiones, ellos mismos padecieron al ser atrapados.

**Ruta del Vino y el Pescado (GR 38).** Una de las principales vías de comunicación de los arrieros vascos fue durante siglos la que enlazaba las orillas del dulce río Ebro con las saladas aguas de la costa de Bizkaia. El ir y venir de carretas y mulos, salvando las sucesivas sierras montañosas que se interponían por el camino, se debía a la comercialización de los caldos riojanos o el trigo y la pesca marina, yendo los toneles de vino a los puertos de Bermeo, Lekeitio u Ondarroa y volviendo el pescado en salazón al interior meridional riojano del área de Oion.

**Ruta de las Golondrinas.** Una suma de senderos, con variantes desde otros valles y con una señalización parcial, comunica Erronkaribar [valle de Roncal] con Maule, la capital zuberotarra, a la cual acudían las mujeres más jóvenes de esta zona del Pirineo navarro para trabajar en las factorías de alpargatas, una industria relevante a finales del siglo XIX y principios del siguiente. El nombre de las "golondrinas" deriva de la similitud entre las trabajadoras y el pájaro en cuestión, que migraba en otoño y volvía en primavera, además de la coincidencia entre el plumaje negro de las aves y los oscuros vestidos de las mujeres.

**Camino Real de la Sopeña (GR 284).** Antigua vía comercial extendida entre el valle de Mena, norte de Burgos lindante con Bizkaia, y la localidad de Urduña, en la cual había una aduana –ahora balneario– que controlaba el mercadeo. Ronda que transcurre por la preciosa sierra Salbada y, aparte de los magníficos enclaves naturales, recala en hitos arquitectónicos como la villa de Artziniega o el conjunto de Kexana [Quejana].



**Gorka López** es fotógrafo y escritor ligado a los distintos territorios montañosos de Europa, trabaja principalmente en la publicación de libros y revistas de la editorial Sua.

## DATOS PRÁCTICOS

**Contrabandistas.** Ruta circular que parte de Hondarribia y conecta con Baztan, para retornar a la primera tras 175 kilómetros de distancia, en los cuales se acumulan más de nueve mil metros de desnivel. Esta concebida para realizar en siete etapas y posee un trayecto ideado para BTT. www.kontrabandistak.com.

**GR 38.** 167 kilómetros de distancia entre Oion y Bermeo salvados en siete jornadas. Existe una variante que se desvía a Santutxu y, desde allí, se desdobla para conectar con los otros dos puertos de comercio: Lekeitio y Ondarroa. www.senderismoeuskadi.net.

**Golondrinas.** Sin haber un recorrido oficial, existe un sendero balizado entre Izaba y el collado de Arrakogoiti, el paso más habitual y también utilizado por contrabandistas y por mercaderes de lana, que desciende al valle de Santa Grazi, desde donde podemos conectar con Maule de distintas maneras, realizando otra parada en Atharratze o cercanías. Lo ideal es invertir tres etapas para el camino de ida.

**GR 284.** Son tres etapas, la segunda de las cuales une Añes con Artziniega para volver a Añes en la misma jornada. En la tercera podemos unir Añes con Amurrio o volver por lo alto de la sierra, a través de Txarlazo. www.alava.net.



### BIDASOA, LA SENDA DE LOS CONTRABANDISTAS
Mikel Albisu & Xabier Zugarramurdi
SUA

La Senda de los Contrabandistas del Bidasoa discurre por espacios naturales protegidos como los humedales de Txingudi, el Parque Natural de Aiako Harria, el Área Natural de Leurtza y el LIC de Belate, la turbera de Larrun o las cimas de Bianditz, Mendaur, Saioa, Auza, Alkurruntz y Larrun. En euskera y castellano.




### GAU LANA – KONTRABANDOA BIDASOA ALDEAN
Rosa Arburua
ALBERDANIA

Euskal Herria, geografikoki eta ekonomikoki guztiz estrategikoa izan da. Jada, erromatarrek administratiboki bi eremutan banatu zuten Euskal Herria. Rosa Arburuak bi zati nagusi osatu ditu. Lehenean, alderdi historikoa ikertu du; bigarrenean, protagonisten lekukotasunak bilduz erreportaje literarioa osatu du.



### EL CONTRABANDO EN BAZTAN CONTADO POR SUS PROTAGONISTAS
Pedro Esarte
PAMIELA

Partiendo de su propia experiencia, Pedro Esarte ha entrevistado a antiguos compañeros de oficio para mostrar la vida del contrabando en Baztan. Como resultado, ha recopilado numerosos datos y anécdotas que hasta el presente habían quedado al alcance de muy pocos.

## NOBEDADEAK




**GUÍA VERDE ESPAÑA PENINSULAR**
AA.VV.
MICHELÍN

Elije los itinerarios y lugares turísticos guiándote por las estrellas: * interesante, ** vale la pena desviarse, *** justifica el viaje. Incluye información práctica, proponiendo itinerarios turísticos con opciones adaptadas a todos los bolsillos.




**GUÍA TRANSFRONTERIZA DE RESTAURANTES DE BURDEOS A BILBAO**
Jacques Ballarin & Josema Azpeitia
ZUM

Información sobre más de 500 establecimientos de Burdeos, Las Landas y Euskal Herria, que recoge diferentes tradiciones y tendencias culinarias de un entorno geográfico próximo pero diverso, de una gran riqueza culinaria.




**GUÍA DE LA COSTA VASCA**
Batzuk
GARA

Itsasertzeko hiru probintzietan aisiari, ikuskizunei, ostatuei, jarduerei, gastronomiari eta interes turistikoa duten tokiei buruzko eskaintza osoa. Kostaldeko 45 udalerriak, herriz herri. Hondartzak, ikuskizunak, jaiak...




**GUÍA DE AVES DE EUSKAL HERRIA**
X.M. Penas & C.Pedreira Lopez & Carlos Silvar
SUA

220 aves que anidan, invernan o pasan por Euskal Herria. Recoge la descripción de cada ave, su vuelo, su canto, su hábitat, sus costumbres, el tipo de catalogación: en peligro de extinción, protegida, especial, etc.




**DISFRUTA EUSKADI**
Dakotabox

Kutxa honek Euskal Herrian, Riojan edo Cantabrian egiteko banakako 125 esperientzia edo binakako 135 biltzen ditu bere baitan. Kutxa barruan aktibitateen azalpenekin datorren liburuxka elebitan da. Gozatu Dakota esperientzia!

## BLUME www.blume.net

### Historia I Música




**El libro oficial del 50 aniversario**
Tela con sobrecubierta
25 x 30 cm 352 pp.
Disponible en preventa en www.elkar.com.




Cartoné con sobrecubierta
28,5 x 35 cm 176 pp.

### Fotografía I Reportaje




Cartoné con sobrecubierta
27 x 37 cm 448 pp.

### Vida natural




Rústica con sobrecubierta
19 x 23,5 cm 256 pp.

# JASONE OSORO

## *“Irakurleak ondo pasatzea eta entretenitzea da nire helburua”*

**Jara pertsonaiarekin ezagutu genuen Jasone Osororen (Elgoibar, 1971) gazte literatura egiteko esku ona. Pertsonaje hau sortu zuenetik urte batzuetara *Ezekiel* liburuarekin frogatu zuen aurreko argitalpenen arrakasta ez zela kasualitate hutsa izan. Oraingoan, Ezekielen abentura berriak bildu ditu *Ezekiel nora ezean* liburuan.**



**Zure idazle ibilbidean helduentzat zein gazteentzat idatzi izan duzu, zeinenganako bidea da errezagoa?**
